



Arartekoaren Ebazpena, 2012ko martxoaren 5koa. Haren bidez eraikuntza proiektu batean hirigintza araudia betetzeari buruz aurkeztu salaketa eta idazkiei berariaz erantzutea gomendatzen zaio Zumaiaiko Udalari.

Aurrekariak

1. Pertsona batek Arartekoarengana jo du adierazteko Zumaiaiko Udalak ez diela erantzunik eman (...)ko (...)an etxebizitzak, lokalak eta trastelekuak egiteko proiektuari buruz aurkeztutako zenbait idazkiri. Proiektua sustapen publikokoa da eta (...) sozietate publikoak eskatu du.

(...). Egikaritze fasean zegoenean, sustatzaile publikoak proiektua berrikusi eta aldatu zuen, udalaren txosten tekniko bat jaso ondoren. Han, Zumaiaiko Arau Subsidiario batzuk betetzen ez zirela adierazi zen. Erreklamaziogilea ez dago ados txosten teknikoaren balorazioekin, uste baitu txosten horiek indargabetutako hirigintza esparru batean oinarritzen direla.

Hori esanez aurkeztu zuen idazki bat Zumaiaiko Udalean –gutun pertsonaltzat hartua-, 2009ko abenduaren 9an. Haren bidez, udal zerbitzu teknikoari adierazitakoa zuzentzeko eskatu zien. Idazki hori 2010eko otsailaren 25eko gutun pertsonal batzuen bidez errepikatu zen, alkateari eta gainontzeko zinegotziei bidalita, zegokien udal batzordeetan irakurtzeko. Erreklamaziogileak dioenez, denbora luzea igaro arren, ez du erantzun ofizialik izan.

Bestalde, jakin zuen (...) proiektu berri bat zegoela. 2010eko irailaren 24an, erreklamaziogileak idazki bat aurkeztu zuen udal erregistroan, zenbait alegazio erantsita.

Alde batetik, aurkeztu zuen txosten teknikoan justifikatu zuen (...) etxebizitzaren lehen proiektuak Zumaiaiko Arau Subsidiarioetan xedatutako hirigintza esparrua betetzen zuela.

Bestetik, (...) proiektu aldatuari buruzko beste txosten tekniko bat erantsi zuen. Txosten horretan salatu zuenez, aurkeztutako proiektuak ez zituen betetzen Arau Subsidiarioak zenbait alderditan (hirigune historikorako eraikuntza baldintza bereziak, aireztapen eta argiztapen baldintzak,





hegalak, eraikinaren segurtasuna edo plaza esparruaren parte hartzea). Zentzu horretan, adierazi zuen, hirigintza legediaren xedapenen arabera, Zumaiako Udalak berehala eten behar zituela lanak eta proiektua aldatu edo plangintza aldatuz edo berrikusiz legezatu behar zuela.

Idazki horiek aurkeztu arren, erreklamazilogileak bere kexan dioenez, obrek aurrera jarraitu dute eta ez du jakin izapiderik egin denik bigarren proiektuak arauak ez betetzeagatik aurkeztu salaketei eta proiektu aldaketari aurkeztu alegazioei buruz. Azken batean, haren asmoa aurkeztutako lehen proiektuaren zuzentasuna aitortzea eskatzea eta bigarren proiektuari dagokionez udal ordenantzak betetzen ez dituela ohartaraztea zen.

2. Erreklamazio hau izapidera onartuta, argibideak eskatu genizkion Zumaiako Udalari erreklamazilogilearen idazkiei erantzuteko egindako udal jarduketari buruz, batez ere hirigintza arauak urratzeagatik aurkeztu salaketei dagokienez.

Gure eskaerari erantzunez, Zumaiako Udalak argibideak eman zizkigun (...) udal enpresak (...)an etxebizitzak, lokalak eta trastelekuak egiteko burututako proiektuari buruz. Gauzak horrela, proiektuaren aldaketaren zioa Eraikuntza Kode Tekniko berrira egokitzea izan zen. Eskatutako azterlanaren iritziz, proiektuak ez zituen Arau Subsidiarioetan adierazitako zenbait kontu betetzen. (...)k hirigintza kontsulta bezala eskatu zioten txostena Zumaiako Udalari. Zerbitzu teknikoek 2009ko irailean jakinarazi zuten txosten hori, eta horren ondoren (...)k eraikuntza proiektua aldatzea erabaki zuen.

Erreklamazioei emandako izapideari dagokionez, Udalak jakinarazi zuenez, erreklamazilogileak 2009ko abenduaren 14an udal zerbitzu teknikoari aurkeztutako lehen idazkiari udal arkitekto teknikoak erantzun zion zuzenean posta elektronikoz.

2010eko otsailaren 25ean zegokien batzordeetan irakurtzeko igorritako bigarren idazkiari dagokionez, Udalak argudiatu du ez zitzaiola erantzun formalik eman zinegotzietan zuzendutako gutun pertsonala zelako.





Edonola ere, igorritako udalaren informazioan ez da jaso 2010eko irailaren 24an aurkeztu gainontzeko idazkiei erantzuteko egindako izapideei lotutako administrazio jarduketa gehiagorik.

Arestiko aurrekariak ikusita, pentsatu dugu egokia dela, erreklamazio honen gaiari dagokionez, kexa espediente honi buruzko zenbait oharbide helaraztea.

Oharbideak

1. Kexaren arrazoia, (...)k (...)n etxebizitzak eraikitzeke aurkeztu eraikuntza proiektuaren aldaketari dagokionez, erreklamaziorik aurkeztu idazkiei Udalak erantzunik ez ematea da.

Aurkeztu idazkien artean kasu bi bereizi behar lirateke. Alde batetik, erreklamaziorik zenbait udal mailaren aurrean igorri zituen gutun pertsonalak, eraikuntza proiektua aldarazi zuten gertakariekin duen desadostasuna adierazteko. Bestetik, erreklamaziorik aurreko eraikuntza irtenbidea zuritzen du eta eraikuntza proiektu berriaren balizko zenbait hirigintza akats salatu ditu.

Udalaren txostenak idazki pertsonalei emandako izapidearen berri ematen digu. Kasu horretan, uste du pertsonaltzat hartu zenez, udal arkitektoak idazkietako bati emandako erantzuna baietsi baino ez duela egin Udalak. Udal administrazioak ez ditu izapidetu beste udal arduradun batzuei izenez zuzendutako idazkiak.

Bigarren unean egindako salaketei eta argibide eskabideari dagokienez, Zumaiako Udalak ez ditu jarraitutako izapideak aipatu ezta igorritako berriazko erantzuna ere.

2. Orokorrean, hasi behar dugu esanez herri-administrazioek, herritarrekiko harremanetan, administrazio prozeduraren bidez bideratu behar dituztela euren eginkizun publikoak. Administrazioak horrela jokatzeko arrazoiak xede bikoitza dauka: administratuen eskubideen bermea izatea eta, bestela, interes publikoarena berarena.

Administrazio prozedura orokorrak administrazio jarduera ordenatu, izapidetu eta fiskalizatzeko kontuan hartu beharreko arauak xedatzen ditu.



Administrazio izapideak eta herritarrentzako egiazko erantzuna egotearen bermea Espainiako Konstituziotik beretik dator -103.1 eta 105. artikulua eta Lisboako Itunak sartutako Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Kartako 41. artikulua xedatzen duenez, herritarrek administrazio onerako duten eskubidearen baitakoak dira.

Administrazio onerako eskubide horren barruan, honakoak aipa ditzakegu: aurkeztutako idazkien hartu-agiria, ofizioz bultzatzea eta agertutako kontuei berriaz erantzun beharra. Halaber, administrazioak euren nahiari buruz erabil ditzaketen eskubideen berri eman behar die pertsonari. Zehaztasunik ezak edo nahiak edo erreklamazioak bere jarduketa eremua gainditzeak ez du herri-administrazioa bere betebeharrak betetzetik salbuesten.

Aitzitik, herritarren erreklamazioei dagozkien izapideak ez egitea eta administrazio erantzunik ez ematea administrazioaren funtzionamendu ezohikoa da.

3. Zentzu horretan, ordezkapen erakundeei edo administrazioaren zerbitzurako langileei zuzendutako idazki bat aurkezteak aipatutakoaren arabera izapidetzea eskatzen du.

Azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, 70. artikuluan, interesatuak eskatuta prozedura hastea xedatzen du. Oinarrizko betekizunak artikulua horretan datoz. Eskabideak arrazoiak eta eskaera zehatza ekarri behar ditu. Edonola ere, prozeduraren izapidea hauspotzen duen formalismoaren aurkako arauak edozein eskabide edo eskaera mota onartzen du. Gauzak horrela, helburua zehazten ez bada edo interesa administrazio prozeduratik kanpokoa bada, hura zehaztu behar da, 71. artikulua arabera, eskabidea zuzendu edo hobetzeko.

Eskaeraren hartzaillearen eskumenen eremuaren barruan, berriazko prozedurarik ez daukaten eskabideek Eskatzeko Eskubidea arautzeko azaroaren 12ko 4/2001 Lege Organikoan xedatutakoari egokitu behar dute.

Testuinguru horretan, administrazioak administratuen nahia bideratzen ahalegindu behar du ordenamendu juridikoak ezarritako prozedura zehatzetan.

Beste kontu bat da administrazio erakunde edo karguei igor dakizkiekeen bestelako komunikazio pertsonalak igortzea. Pertsonaltzat hartutako komunikazioak, euren definizioz, administrazio prozeduraren arauen





aplikaziotik at geratzen dira eta ohitura edo gizalege arauetan kokatu behar dira erantzuterakoan. Edonola ere, administrazioaren funtzionamendua arautzen duten arauak, hala nola formalismoaren aurkakotasunak, fede onak edo bidezko konfiantzak bidea ematen diote administrazioari idazki horiek berariazko prozeduretara birbideratzeko eta, egokia balitz, eskatzeko eskubidera, hari dagokion izapidea emateko.

5. Kasu honetan, udalaren txostenak idazki pertsonalari emandako izapidea islatzen du. Haren bidez, zerbitzu teknikoek egindako balorazioa helarazi zion administrazioak.

2010eko irailaren 24an aurkeztu idazkiari dagokionez, ez dugu jakin erantzunik edo hari buruzko izapiderik egon zenik.

Gure aburuz, idazki horri bi zentzutan heldu behar zitzaion. Alde batetik, salaketa gisa, eraikuntza proiektuaren aldaketak hirigintza legea urratu izana gerta zitekeelako. Bestalde, aurkeztutako lehen eraikuntza proiektua legearen arabera izateari buruzko eskaera edo kontsulta gisa.

Hirigintza salaketak eta kontsultak, gai honetan dagoen ekintza publikoa erabiliz, administrazio espedientea izapidearazi behar dute, hirigintza legediaren eta AJAPELen xedatutako arauen arabera.

Zentzu horretan, salatutako kontuak baloratu ondoren, erakunde eskudunak aztertu behar du dagokion hirigintza diziplina espedientea zabaltzea edo, bestela, eskatzailearen nahia ezesteko ebazpenaz amaitu.

Edonola ere, ekintza publikoaren erabilerak alde interesatuei udal esku-hartzea artxibatu izanaren berri eman beharra dakar, kasu bakoitzean dagozkion ekintzak eta errekurtsioak erabili ahal izateko.

Horregatik guztiagatik, erakunde hau sortu eta arautzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legeko 11 b) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako gomendioa egin da:





36 /2012 GOMENDIOA, martxoaren 5ekoa, Zumaiko Udalari egina

2010eko irailaren 24an aurkeztutako idazkiari dagokion izapidea eman diezaion. Idazkian, erreklamaziogileak salatu zuen (...) egiteko aldatutako proiektuak Arau Subsidiarioak urratu zituela zenbait alderditan. Halaber, (...) lehen proiektuaren hirigintza zuzentasunari buruzko argibideak eskatu edo kontsulta egin zituen.

